

Diskriminazioa, zaintzak eta migrazioa

JARDUNALDIA

2018ko abenduak 10

09:30-14:00

Koldo Mitxelena Kulturuneako hitzaldi-aretoa

Urdaneta kalea, 9. Donostia

Askeak eta berdinak duintasun eta eskubideei dagokienez

TRATU-BERDINTASUNARI ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO I EUSKAL KONGRESUA



Inskripzioak: <https://goo.gl/forms/KOVDVmuxCTxAdi6p2>

Zaintza-lana erantzukizun kolektiboa, eskubidea eta betebeharrak dela oinarri hartuta, gizarteak behar horri nola erantzuten dion aztertuko dugu, eta nola bihurtu den zaintza-lana eta etxeko lanak migratutako emakumeen laneko nitxo. Etxeko langile eta zaintzetako lanak egiten dituzten emakume migratuen urrakortasuna eragiten duten egiturazko baldintzen inguruan jarriko dugu arreta.

Honako helburu hauek ditu jardunaldiak:

Etxeko lanetan eta zaintzetan lan egiten duten emakume migratuek bizi duten diskriminazio- eta abusu-egoerak bistaraztea.

Aplikagarri den araudi mailako testuinguruan eta emakume migratutako emakumeen egoeran duten eraginean arreta jartzea.

Etxeko langileek beren lan-baldintzak eraldatzeko eta langile gisa (betebeharrak zein eskubideak dituzten langileak) aitortuak izan daitezzen erabiltzen dituzten estrategiak nabarmentzea.

Legez dauden mekanismoak eta beste baliabide batzuk ezagutaraztea etxeko langileen lan-eskubideak babes-teko eta arlo horretan diskriminazioaren aurka egiteko.

Jardunaldiak testuinguru bikoitza du: alde batetik, **TRATU BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZARI BURUZKO I. EUSKAL KONGRESUAREN** jarduera osagarria da. Eta bestalde, Emakundek sustatutako **BERDINTASUNERAKO FOROAN** txertatuta dago.

Genero-berdintasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza eta lan-eskubideak sustatzen lan egiten duten pertsona eta erakunde publiko eta sozial gutzietan zuzenduta dago.

EGITARAUA

- | | |
|-------------|---|
| 09:30-09:45 | Akreditazioa |
| 09:45-10:00 | Inaugurazioa
Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.
Familia Politika eta Aniztasuna Zuzendaritza.
Eusko Jaurlaritza. |
| 10:00-11:30 | Esparru-hitzaldia
Zaintzako emakumeak: sektore artekotasuna eta diskriminazioa
ruth m. mestre i mestre. Institut de Drets Humans de la Universitat de València. |
| 11:30-12:00 | Kaferako atsedenaldia |
| 12:00-13:45 | Mahai-ingurua
Etxeko lanetan eta zaintza-lanetan diskriminazioari, abusuei eta indarkeriari aurre egiten
- Silvia Carrizo Fernández. Malen Etxea.
- Silvia Rugamas Rivas eta Riosby Fernández Álvarez. Trabajadoras no Domesticadas ikerketa-lanaren egileetako batzuk.
- Víctor Monreal de la Iglesia. Gipuzkoako Lurraldeko Ikuskaritzako burua. Euskadiko Lan Ikuskaritza. |
| 13:45-14:00 | Amaiera |

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:

Zuzendaritza teknikoa:



Berdintasuna ikasi egiten da
Irakatsi berdintasuna

